

Urnietan bertan segan arituko da Julen Gabirondo

Euskal Herriko sega txapelduna Gipuzkoakoaren atarikoan lehiatuko da igande honetan, Azkonobietako larreetan. Elkarrizketa eskaini dio Aiurri / 12-13

Gure Esku Dago ekimenak ehunka lagun mugiarazi zituen Usurbil eta Aginaga aldera / 2-3

Ekonomia sozial eta eraldatzailearen azoka, larunbatean Andoaingo Juanita Alkain plazan / 5

Ekainak 16



11:00-13:00
Juanita Alkain Plaza
Feria fiare

JANARI BILKETA

ATUN eta SARDINA
latak behar ditugu
lehenbailehen
Greziara bidaltzeko
errefuxiatuentzat

BAITA ERE:
Lekaleak, azukrea,
gailetak, olioak,
pasta, eztiak, tea,
esne kondentsatua



Andoaingo Rock jaialdia

Euskal Herriko eta nazioarteko musika taldeak zuzenean eta dohainik Nafarroa plazan, larunbatean / 8-9



Parte-hartzaile askoren gogoia aurpegietan ikus zitekeen. Eskuz esku egin zen ekitaldia, baina baita irribarrea ahoan ere. **AURRI**

Eskuak luzatuta, irribarrea ahoan

Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, mila lagunetik gora izan ziren Urnietatik eta Andoaindik autobusez giza katean parte hartzera Usurbil eta Aginaga aldera abiatu zirenak. Eguraldia lagun, erabakitze eskubidearen aldeko ospakizuna izan zen

Jon Ander Ubeda ESKUALDEA

202 kilometro osatu behar ziren Donostiatik Gasteizera, bidean Bilbotik igaroz. Beterri-Buruntzako biztanleei lehen kilometroetan egotea egokitu zitzairen, Usurbildik Oriora doan errepide estu eta arriskutsuan. Andoaindarrak Usurbil herriaren irteeran dagoen industrigunean egotera deituta zeuden, Orioko norabidean bi kilometro osatzeko. Eskuz esku, ondoan izan zituzten Aginagako eta Urnietako biztanleak. Tarterik arriskutsuena andoaindarrena izan zen. Urnietarrek giza katea espaloien gainean egin ahal izan

zuten bezala, andoaindarrek espaloirik gabeko eta aterabide eskaseko errepide zatia bete zuten. Ulergarria zen Andoaindarrak antolatzaileen kezka eta ardura, denbora tarte horretan ibilgailuak eta txirrindularien tropelak bidean gora eta behera zebiltzalako. Deskuidorik txikiena istripu bilaka daiteke, horrelako egoeratan. Ez zen zorigaitzoko gertaerarik izan eta giza katea ospakizun bilakatu zen. Askoren asmoa hasieratik horixe izan baitzen: Aldarritzeaz batera, ospakizun kolektiboaren parte izatea. Bertaratu ziren gehienek oihu eginez

eta olatua egiten igaro zuten ordu erdia. Txalo zaparradarekin amaitu zuten giza katea. Eguerdian antolatzaileek emandako datuen arabera, denera 175.000 herritarrek parte hartu zuten. Jendetzaren sentsazio hori ez zen andoaindarraren artean bizi izan, tarte batzuetan katea osatzeko lanak izan zirelako. Desorekak izan ziren Usurbil-Aginaga artean. Herrigunean jendetzaren irudiak iristen ziren bitartean, Orioko bidean estu ibili baitziren. Giza katea amaituta, parte hartzaile batzuk ospakizunari Donostian eman zioten jarraipena.

Andoaingo kilometroak: #13 #14



Ibilgailuak ez zebiltzala ikusita, partaideek olatua egiten zuten.

Ospakizuna Parte hartzeko gogoia bazegoela argi geratu zen igande eguerdian, andoaindarrek bete behar zuten giza katearen zatia ospakizun giroko hitzordu bilakatu baitzen. Herritik hamar autobus irten zen Usurbil-Aginaga aldera.



Joxean Barandiaran alkate ohia eta Ana Carrere alkatea, ezkerrean.

Ordezkaritza politikoa EH Bildu eta EAJ-PNVko ordezkariak zabala hurbildu zen giza katera. Zinegotzietatik gain, bi alderdietako kide eta militante ezagunak ikus zitezkeen ibilbidean zehar. Sare sozialetan denek ere parte hartze aktiboa izan zuten.



Andoain Udalteko eta Usurbilen Ertzaintza lan eta lan aritu ziren.

Trafikoa Andoaindarrei egokitutako errepide zatia arriskutsua zen, bihurgunez beterikoa. Espaloirik ez zegoen, gainera. Beraz, giza katera hurbiltzeko lanak tentuz egin behar izan ziren. Partaideek, dena esatera, antolatzaileen argibideak zintzo bete zituzten.



Giza kateak iraun bitartean eguraldi bikaina izan zen Usurbil aldean. Eguzkiak gogotik jo zuen eguerdi aldera. AIURRI

Urnietako kilometro erdia: #15



Urnietarren tartean, parte hartzaileak eta antolatzaileak herrikideak ziren.

Mugimendu zibila Urnietar guztien segurtasuna bermatzeko hainbat herrikide lanean aritu zen. Besteak beste, Fermin Argiñarena (argazkian), Juankar Erasun, Mikel Izagirre, Isidro Salinas edota Fermin Zinkunegi.



Eskertza

GURE ESKU DAGO ANDOAIN

Andoaingo erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduaren izenean, lerro hauen bitartez, gure esker ona adierazi nahiko genuke. Joan zen igande goizean herrikide asko eta asko hurbildu zineten Makaldegira, autobus bidaian Usurbilera eta Aginagara giza kate erraldoiaren 13. eta 14. kilometroak osatzeko gogoz. Antolatzaileen esanak zintzo bete zenituzten. Erakutsitako jokabideari esker, bihurgune itxiz eta oinezkoentzat arriskugunez beteriko errepide zatian ez zen inongo arazorik sortu.

Eskerrik asko!

Eskertza luzatu nahi diegu igandean bertan laguntza osagarria eman ziguten laguntzaile eta bolondresei ere. Eta baita autobusen joan etorrian zein trafikoaren bideraketa lanetan profesionaltasun handia agertu zuen Andoaingo Udaltzaingoiari ere.

Esker berezia, baita ere, Kaleberriko eta Zumea kaleko lokalari jabeei. 2017ko udazkeneko herri galdeketa gauzatzeko eta 2018ko udaberriko giza katea antolatzeko, Andoaingo Gure Esku Dagok lokal bana izan du. Aukera bikain hori lokal horien

jabeen eskuzabaltasunari esker izan da. Garrantzia handikoa izan da, bi hitzorduetan herrikide askorekin hartu emana izatea bermatu ahal izan dugulako.

Herri galdeketak, Herritarren Ituna eta joan zen igandeko giza katea, inoiz ezagutu den mobilizaziorik handiena. Hiru lan ildoek, norabide berean, bat egingo dute aurtengo urtea amaitzen denean, eta une horretan atea zabalduko diogu ziklo berri bati. Herritarrok gure etorkizuna erabakitze aukera izango dugun zikloari.

Eman diezaiogun eskua etorkizunari, demokraziari, erabakiari. Jende zoriontsua izan nahi dugulako, herri libre batean.

Har dezagun bidea!



Jorge Segurado zinegotzia eta Mikel Pagola Urnietako alkatea.

Ordezkaritza politikoa Urnietako EAJ-PNVko eta EH Bilduko udal ordezkariak zabalak igandeko giza katean parte hartu zuen, Gure Esku Dago ekimenarekin eta urnietar askoren borondatearekin bat eginez.



Aginagan ikus zitekeen estelada urnietarra zen. AIURRI

Argazkiak eta bideoak sarean



Urnietarrak giza katean



Andoaindarrak giza katean

AIURRI.EUS

Kataluniarekin elkartasuna Rosa Sanchez sortzez Kataluniako Baix Llobregat eskualdekoa da. Urteak daramatza Urnietan, Aiurri abenduan eskainitako elkarrizketan adierazi bezalaxe. Joan zen igandean Estelada eta guzti parte hartu zuen giza katean.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

Handienaren alde

Extremadura izango dut hizpide, baina sentitzen dut irakurle, ez diot helduko Andoaingo udalgintzan azken aldian polemika sortu duen gaiari, futbol zaletasunari baizik. Meridatik zetorren notizia, maiatzaren 26an: Real Madrilek Champions Leaguea irabazi zuen une berean, Merida futbol taldea hirugarren mailara jaitsi zen. Bada, Meridako plaza nagusian jendea erruz bildu omen zen gau horretan.... Madrilen garaipena ospatzeko!

Meridan gertutakoaren atzean suma daitekeen mentalitatea estatuko makina bat txokotara eraman genezake, oker handirik egin gabe. Konstatazio bat baita: milaka eta milaka herritarrentzat elastiko zuria da bihotzekoa; bertako taldea, aldiz... Sentimendu errotu horrekin lotuko nuke, geroz eta ume gehiago Bartzelona edo Real Madrilen elastikoak janztearekin. Andoaingo kaleetan normalizatzen ari den fenomeno horrekin kritiko azaltzeagatik haserretuko zait baten bat -familian eta lagunengandik hasita-, edonongo taldeko zaletua izateko eskubidea daukagula esanez, eta tira, geraezina dela komunikabideek umeekiko duten indarra. Beste baterako utziko dut betiereko eztabaida, ea haurrei, beren nortasunaren formakuntza prozesuan, nortzuk eta zerk eragiten dieten gehiago: familiak, ikastetxeak, lagun giroak... Aрги daukaguna behintzat, zera da, etxetik hasten dela prozesu hori. Zer ikusi, hura ikasi.

Eta boteretsu eta irabazlearen aldekoa izatearen jokabide-arau hori bera trasladatuko bagenu bizitzako gainerako esparruetara? Zein balore transmititzen dituzte, konparazio batera, Ronaldok edo Messik? Zelaian artistak izateaz aparte, gure haurrentzat

giza-eredu horiek nahi ote ditugu? Banitatearen eta harropuzkeriaren pertsonifikazioa den pertsona bat? Edota gaztetxo zenetik Katalunian bizi den arren, bertako hizkuntzan sekula esaldi bat ahoskatu nahi izan ez duen bat?

Mentalitate zaharkitua izatea

leporatuko zait akaso, baina handienaren eta arraskatatsurengana arrimatze joera horren atzean askatasun pertsonala baino gehiago, gizaki uniformizatu eta automatizatutako gizarte bateko sintomak sumatzen ditut. Non geratzen ote da zure gertuko horrekiko harro sentitzearen sentimendua, izan futbol taldea, izan hizkuntza, izan ohiturak...? Nahiz eta txikiak eta galtzaileak izan.

SAREAN

Eguzki talde ekologistaren salaketa

NOAUA.EUS

Argazkia joan den igandekoa da. Hain zuzen Gure Esku Dago mugimenduak deitutako giza kate eguneko. Eguzkitik ohartarazi dutenez, igandean agerian geratu zen berriz, Troia inguruko pasabideak herritarren segurtasunerako duen arriskua: "Mila lasarteoriatar baino gehiagok parte hartu zuten Gure Esku Dagok antolatutako ekimenean. Horietako askok, zubietarrek bezala, Troiatik pasatu behar izan zuten. Tropelaren babesean eta GEDko antolatzaileen zaintzapean joan ziren arren, berriz ere bertatik bertara frogatu ahal izan zuten zer arrikutsua den pasagune hori. Lehendabizi, trenbidea pasatu egin behar da, eta, trenbidea pasatuta, zuzen-zuzenean



N-634ra ateratzen da. Eta han ez dago espaloirik ez bazterbide zabalik", gogorarazi dute Eguzki taldek.

Usurbilgo Udalak, Eusko Trenek eta Foru Aldundiak

pasagune horri lehenbailehen soluzio bat eman behar diote. Alde batetik, arriskua bera saihesteko eta, bestetik, Lasarte, Zubietta eta Usurbilen arteko lotura peatonal duin bat behingoz bermatzeko.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALIATUAK: ALIATUAK, TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
 ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:
 EUSKO INPLURALITZA GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia
 ZIURTAGIRIA: BABESLEAK:
 2017 Bitarn, Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTAK

“Erabaki etiko egingarriak agertuko ditugu azokan”

ATXUR AZURMENDI, HAIZEA BALTASAR ETA LUIS ESCUDERO ANDOAINGO FIARE

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbat honetan Andoaingo Juanita Alkain plazan ez ohiko azoka antolatu dute, goizeko 11:00tan hasi eta 14:00ak arte zabalik izango dena. Andoaingo Fiare elkarteak da antolatzailea. **“Alternaktiba Azoka”ren bigarren edizioa da; ugaritzen doa elkarten presentzia.**

Bai, elkarteei interesgarria iruditu zaie azokaren formatua, beren burua ezagutzera emateko. Gure inguruan elkarre ugaritu daude eredu ekonomiko alternatiboak proposatzen dituztenak, baina ez ditugu behar bezala ezagutzen. Andoaingoak edo Beterrikoak dira gehienak.

Eskaintza ezberdinak, beraz, azoka berean.

Gizarteko arlo ezberdinak jorratzen dituzte, eguneroko bizitzan egingarriak eta operatiboak diren jardunbide etikoa proposatuz. Azken batean, denok nahi dugu ongizate pertsonala, baina



Azurmendi, Baltasar eta Escudero Fiareko kide eta azokako antolatzaileak. AIURRI

badakigu eguneroko bizimoduan hartzen ditugun erabaki ekonomikoak etika mailako erabakiak ere badirela, batzuen onerako eta besteen kalterako izan daitezkeenak.

Ez dituzuela eskaintza utopikoak egiten, errealistak baizik.

Hala da. Nekazal produktuak kontsumitzeko kooperatiba, banku eredu alternatiboa, etxeko argiaren hornidura... GoiEner kooperatibak bi

urrats errazetan etxeko argiaren hornitzailea aldatzeko aukera eskaintzen du. Nahikoa da argiaren faktura bat aurkeztea.

Hitzalditxoak izango dira goizean zehar

Karpa eta aulkiak jarriko dira ere, bost-hamar minutuko aurkezpen bana egin ahal izateko. Aurkezpen guztiak dira interesgarriak, baina aipatzekoa da, esaterako, Andoaingo SOS Kaleratzeak elkarrearte gehiegizko klausulen inguruan prestatu duen txostena; Andoainean ez ezik Euskal Herri osoan erabilgarria izango da. Aldi berean, tarte berezia hartuko du Deustuko unibertsitateko irakasle Cristina de la Cruzek; ekonomia solidarioa eta feminismoa lotuz ekoSolFem ekimena aurkeztuko digu.

Greziako errefuxiatuen aldeko jakien bilketari garrantzia eman nahi diozue.

Bai. SOS Errefuxiatuak ekimenak Andoainean baditu bultzatzaileak, eta horiek proposatuta, jakien bilketa kanpaina parte hartzeko aukera emango zaie herritarrei. Asteazken zehar herriko merkatalguneetan utz daitezke elikagaiak, eta larunbat eguardian Azokan bertan. Bildutakoa Greziako errefuxiatuei bideratuko zaie.

HAU ERE BADUGU!

78an jaiotako bazkaria

No eres de Urnieta si no... Facebook orrialdean zabaldu zuten albistea. Datorren uztailaren 7an, San Fermin egunean beraz, 1978an jaiotakoak bazkaria antolatzen dabilta. Oianume jatetxean izango da. Datorren ekainaren 18ra bitarteko epea ipini dute izena emateko. Facebook edota Whatsapp bidez izena emateko aukera dagoela adierazi dute hitzorduaren antolatzaileek.

Zabalkunde handiko aurkezpena



Sormen tailerrak Facebook orrialdean zabaldu zuen albistea. Artista gazteek astelehenean Doktor Huitzi eta Agustin Leitza kalea elkar lotzen dituzten eskilarak margotzeko ekin zioten.

DATUA

Erreportariak

Udaleko Euskara lansailak antolatzen duen Erreportari Gaztea Sariaren XXI. edizio honetan 38 idazlan aurkeztu dira, eta lan horien idazketan 97 gazte parte hartu dute. Lan horietan, azken erabakian adierazi dutenez, gazteak kezkatzen dituzten gaiak jorratu dituzte. Batzuk aipatzearen: Bullyinga, feminismoa, elikadura edota animaliekiko defentsa, teknologia berrien abantaila eta zeharkalteak edota mota desberdinetako dependentziak (jokoa, alkohola, droga, tabakoa,...).

Ostegun eguerdian saridunen berri emango dute Andoaingo Gazte Lokalean, saridunak bertan izango direlarik.

GORA ETA BEHERA



Giza katea errepidean bertan antolatzen aritzen lantaldea

Andoaindarrek bete beharreko bi kilometroak arrisku handikoak ziren. Bidea bihurgunez beterik egoteaz gain, bide bazterrean oinezkoentzat tartetik ez zegoen. Argiro ikus daiteke hori argazkian. Antolatzaileen argibideei esker eta bertaratu ziren herrikideen erantzun zintzoari esker, arazorik gabe igaro zen giza katea.



AIURRI

Zabalkunde handiko aurkezpena



Andoaindar larrauldar gazteak lehen liburua aurkeztu du Donostian, eta hasieratik irismen handia izan du sareetan. Aiurrik igotako argazki horrek, esaterako, zabalkunde handia izan du Instagram, Facebook eta Twitter sareetan.



Ur zerbitzua bermatzeko plastikozko edukiontzia Sahara aldean.

Laguntza programak Kuba, Sahara eta Guatemala aldera

Garapenerako egitasmoak, Urnietako Udalaren eta Euskal Fonda elkartearen arteko hitzarmenari esker

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak, nazioarteko garapenerako 10.800 euroko hiru partida ezberdin onartzea erabaki du. Horietako bat Kubara bideratuko dute. Bertan Habanako erdigune historikoan gizarte-arretarako programa sendotu eta zabaldu nahi dute. Amerikan jarraituz, Guatemalara beste partida bat bideratzea erabaki dute. Indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko egitasmoa lagunduko dute, bertako erakundeek ekimena eta sare sozialaren irismenaren arteko uztarketa sustatuz.

Saharan, azkenik, garraio-azpiegituran sakontzeko laguntza ematea erabaki dute, ur horniketarako kamioi zisternen mantenua berrizatzeko asmoarekin.

Udalak adierazi duenez, "egitasmoek erreferentzia-esparru gisa giza garapen jasangarria dute, betiere zuzenean egitura politiko, sozial eta ekonomikoak eraldatzeko badira". Laguntza Udalak Euskal Fonda elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bitartez gauzatuko da. 2019ko ekainera arte jarraituko du in darrean.



UDALA

Ikasleen musika emanaldiak

Lourdes Iriondo Udala Musika Eskolaren ikasturte amaierako emanaldiak eskaini zituzten Sarobe antzokian, joan zen aste osoan zehar. Argazkia trikitixa eta pandero ikasleen emanaldikoa da. Ez ziren, ordea, protagonista bakarrak izan. Gainerako ikasleek saxofoia, klarineta, bonbardinoa, pianoa edota perkusioa ardatz dituzten musika piezak jendaurrean eskaini zituzten.

Markel Olano Ahaldun Nagusiaren bisitaldia

Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak bisitaldia egin berri du Urnietara, "Udal ordezkariekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin batera etorkizunera begirako beharrak, proiektuak, ideiak eta estrategiak ezagutzea" ezinbestekoa dela iritzita

Erredakzioa URNIETA

Joan zen ostiralean Gipuzkoako Ahaldun Nagusi Markel Olanok, Mikel Pagola alkatearekin eta bi erakundeetako hainbat kargu politikorekin batera, enpresa eta eragile ezberdinekin lan bilerak egin zituzten. Tokiko ekonomia eta ongizatea bertatik bertara ezagutzea izan zen Urnietara Ahaldun Nagusiak egin dako bisitaldiaren helburu nagusia.

Hainbat enpresa eta instalakuntzatan bisitaldiak egin zituzten. Besteak beste, makina erreminten arloko Iner eta Ipiranga kooperatibatar. Olanok adierazi bezala, "Berrikuntzan eta 4.0 industriari oinarritutako enpresa eredugarri dira, punta-ko teknologia erabiltzen dutelako". Nekazal sektorea ez zuten ezagutu gabe utzi nahi izan, eta hori dela eta bi erakundeetako ordezkariak oiloak eta txerriak era ekologikoan hazten dituzten Basitegi baserrira hurbildu ziren.



Iner eta Ipiranga enpresetan izan zen Markel Olano Ahaldun Nagusia. AIURRI

Gizarte eta ongizate mailan, Idiazabal kalean dagoen Pausoka elkartearen ere izan ziren. Ahaldun Nagusiak elkarteak behar bereziak dituzten haurren alde egiten duen lana goraiatu zuen.

Urnietara egin dako bisitaldia amaitu aurretik, Gipuzkoako udalerrietan dauden behar eta erronka ezberdinak lehen eskuatik ezagutzea elkarlan gehiagoren abiapuntu izango dela adierazi zuen Markel Olanok.



UDALA

Argazki-rallyaren sari banaketa ekitaldia

Joan zen ostiralean Urnietako Udalak aurtengo argazki-rallyari dagozkion sariak banatu zituen. Bildumarik onena: Isidro Rodriguez (1. saria) eta Marian Martin (2. saria). Argazki onena: Marian Martin (1. saria) eta Isidro Rodriguez (2. saria). Urnietako bilduma onena: Beñat

Lizaso (1. saria) eta Arantzazu Corbelle (2. saria). Hamalau urtetik beherako bilduma onena: Eneko Garcia (1. saria), Markel Regillaga (2. saria) eta Unai Arregi (3. saria). Dominak: Lucia Montero, Ekaitz Nieto, Peio Santos eta Xabier Regillaga.

Dantza ikuskizun bikoitza asteburu honetan

Egape dantza taldeak, helduen "Ez utzi dantzazeari" eskainiko du ostiral honetan, San Juan plazan eskainiko duen saio irekian. Gaztetxoek "Koloredantz" ikuskizun berriaren bi saio eskainiko dituzte igande honetan, Sarobe antzokian

Amaia Senperena URNIETA

Egape Dantza Taldeko kide den Jaione Jauregiren hitzetan, "Euskal dantzak egungo musikara eta mugimendu ezberdinetara egokituta ikusiko ditugu helduenen ikuskizunean".

Helduek kale giroan egingo duten lehen ikuskizuna izango da hau. Ikasturte osoa daramate ekitaldirako prestatzen eta beraien artean urduritasun puntu bat nabari dela aitortu du Jauregik. Egingo dituzten dantza ezberdinen sorkuntzan dantzariak parte hartze zuzena izan dutela erantsi du, beti ere Edu Muruamendiarazen gidaritzapean.



Gaztetxoak ikuskizun bikaina prestatzen ari dira. AIURRI

Koloredantz ikuskizuna

Aurten koloreak ipiniko dituzte gazteen ikuskizunaren erdigunean. Beraz, ikuskizuneko jantziek ere koloreekin harremana izango dute. Egapekoek urnietarrak emanaldi bikainetara ohitu dituztenez, urtero zaletuen ikusmina berritzen dute. Sarre-arak azkar saltzen ari dira: "Ikuskizun honen lehenengo saioa gonbidapenekin izaten da eta bigarrena herri osoari irekita. Bada, jada bigarren saiorako ehundik gora sarrera saldu ditugu".

Bi ikuskizunak asteburu honetan

- **"Ez utzi dantzazeari..."** Egape dantza taldeko beteranok lehen aldiz kale ikuskizuna eskainiko dute Urnietan. Hamaika dantzari arituko dira. Ostiral honetan izango da San Juan plazan, 22:00etan hasita.
- **"Koloredantz"** Dantzari gazteen ikuskizun berria igande honetan, Saroben. Bi saio eskainiko dituzte: 17:30ean senide eta lagunentzat eta 19:30ean ikuslego zabalari begira. Taula gainean 47 dantzari ikusteko aukera paregabea, hamalau koreografia ezberdinetan. Bigarren saiorako sarrerak dagoeneko salgai daude Sarobeko bulego ordutegian eta baita egun berean ere arratsaldeko 17:00etan hasita.

San Juan bezperako gau magikoa hurbiltzen ari da

Ekainaren 23an, larunbatarekin, azken urteotako ikuskizuna errepikatuko dute Plazido Muxika plazan

Erredakzioa URNIETA

San Juan suaren piztuera berez magikoa bada, ikuskizun paregabearekin aberasten dute Urnietan. Tradizioz beteriko sua, antzerkia, dantza edota musikarekin uztartzen ari dira azken

urteotan, ikuslegoaren gozamerako. Gutxi falta da aurtengo hitzordurako, aste bat baino ez. Gaueko hamarrak direnean, ekainaren 23an, dantza eta perkusio erritmoek hasiera eman gozateko diote gauari.



lazgo ekitaldia, Plazido Muxika plazan.

Kafe antzerkia ostiral honetan Guria eta Egur tabernetan

Urnietako antzerki taldeak "La cita" antzezlaneko esketxa eskainiko du bi tabernetan

Erredakzioa URNIETA

Herriko antzerki taldeak ikuskizun berezia eskainiko du ostiralean Idiazabal kaleko Guria (19:30) eta Egur (21:00) tabernetan. Lagun eta bezero guztien begiradapean esketxa eskainiko dute, urte hasieran Urretxu-Zumarragako Antzez motz lehiaketan aurkeztu zuten "La cita" antzezlaneko pasarteak eskainiz. Antzezlari horrekin lehiaketa hartako finalera iritsi ziren. Iraupen laburreko antzezlana izan zen eta orduko hartan hauexek izan ziren taula gainera igo ziren

aktoreak: Belen Merino, Esther Modia, Ixidro Salinas, Juankar Erasun, Julio Nogales eta Lupe Herrero. Guztiak ere Mikel Agirregomezkortaren zuzendaritzapean aritu ziren lanean.

Status Quo ekainaren 22an

Ikasturteari amaiera emateko, kale antzerkia eskainiko dute, Zaldundegi plazan 22:00etan hasita. Lehenago aipatutako antzezleek gain Conchi Gonzalez, Haritz Peñagarikano, Pili Brandariz eta Xabi Odriozola ere antzezle lanetan arituko dira.



UDALA

Eskola Agenda 21 egitasmoa

Aurtengo edizioan ikasleek klima aldaketari aurre egiteko neurriak aztertu eta proposamenak egingo dituztela iragarri dute. Udalak ohar bidez adierazi duenez, "Urnietako mila ikasle inguru ari dira proiektuan lanean beraien ikas-komunitate osoaren inplikazioarekin". Ostiral honetan udaletxeak batzar aretoan egingo dute aurkezpena, goizeko 11:00etan haiza.

Udako oporraldiaz Gaztelekuan gozatzeko eskaintza

Udalak, Gaztelekuarekin batera, udako aisialdia osatzeko egitaraua aurkeztu du. Izena emateko epea datorren ekainaren 20ra bitarte zabalik izango da. Ekainaren 26an hasi eta uztailearen 17ra bitarte jarduera ugari burutzeko asmoa dute: Kirol jarduerak, egunpasa ezberdinak Gipuzkoan barrena, bi eguneko egonaldia Lizarran...

Sarraila berriak edukiontzia hobeto ireki ahal izateko

Hezetasuna, hotza eta muturreko klimatologiaren ondorioz, edukiontzi marroi eta gris sarraila elektronikoak akatsak ematen hasi dira. Udalak guztiak aldatzea erabaki du, ipiniko dituen berriekin arazo gutxiago eta funtzionamendu egokiago izateko helburuarekin. Bilketa selektiboaren tasa %70etik gertu dago Urnietan.



Nafarroa plazara ehunka rockzale hurbiltzen dira Andoaingo Rock jaialdian. Aurtengoa hamaikagarren edizioa izango da. Arratsaldeko 18:00tan abiatuko da aurtengo jaialdia. AIURRI

Rock doinuen gaua Andoainen

Rock, blues, funk eta bestelako musika doinuak zuzenean eta dohainik entzuteko aukera izango da larunbat honetan Nafarroa plazan. Bertako eta kanpoko artistak ezagutzeko aukera aparta, urtero-urtero bisitari askoren arreta pizten duena

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Munduan rock and rolla jada ez da entzuten den estiloa, erreferente izateari utzi dio", horiek izan ziren Glaukoma taldeko kantariaren adierazpen sonatuak. Bogan dagoen euskal musika taldea da Glaukoma, reggaea edota hip hopa uztartuz arrakasta handia izaten ari dena. Belaunaldi bakoitzak bere soinu banda propioa izaten duenez, ez dirudi egungo belaunaldien artean rock and rollak toki berezia duenik. Horrek ez du esan nahi Elvis Presleyrekin abiatu zen

musika estiloa entzuten ez denik, edota jarraitzaile sutsurik ez duenik. Udako musika jaialdian rocka izaten baita amurik erakargarriena. Adibide onak ditugu Euskal Herritik atera gabe. Besteak beste, hilabete honetan bertan burutuko diren Gasteizko Azkena rock jaialdia edota, txikiagoa bada ere, prestigioa ondo irabazita duen Andoaingo rock jaialdia. "One, two, three, four" larunbat honetan gitarra elektrikoaren hotsak lau haizetara zabalduko dira Nafarroa plazan.

Aurtengoa, gainera, berrikuntzarekin. Jaialdiaren egunean, eguerdian hasita, herrigune osora zabalduko dituzte rock doinuak. Kontzertu txikiak izango dira jende gehien biltzen den herriguneko hiru plazatan: Goikoplazan, Bastero plazan eta Zumea plazan. Eguerdian hasi eta gauerdia arte pozik egoteko egitaraua prest dute rockzaleek Andoainen.

Ez da modan izango, zaletuei bost axola horrek. "It's only rock and roll but I like it" kantatzen duen rockeroa ez da inoiz hilko.



Aurtengo rock jaialdiaren kartela, bertako eta nazioarteko partaidetzarekin.

Sei talde zuzenean ikusteko aukera Nafarroa plazan



Birkit.

18:00 Birkit Gazte garaitan trebatu zen musikan, harik eta 2015ean bere bakarkako ibilbideari ekin zion arte. 2017ko udan "Emen" bere lehen diskoa grabatu zuen. Bakarka aritzen da zuzenekoetan.



Tulsa.

18:50 Tulsa Miren Iza gipuzkoarra taldeko buru eta arima da, ibilbide luzeko kantaria. Emoziozko narrazioak, folk rock amerikar zapoarekin. 2017an "Centauros" disko berria aurkeztu zuen.

"Aperitifa", kontzertuak eguerdian



The Riff Tuckers.

12:00-12:45 Zumea plaza Rock&roll, blues eta country musika estiloak uztartzen ditu Gernikako musika taldeak.



The Coal Porters.

19:55 The Coal Porters Londres hiriburuan sortutako taldeak zuzenekoetan Rolling Stones, Bowie edo Faces bezalako klasikoek bertsioak eskaintzen dituzte.



Boss Hog.

21:35 Boss Hog Punk, funk eta blues musika uztartuz, zuzeneko bizia eskaintzen dute amerikarrek. Iaz argitaratu zuten 'Brood X' diskoa aurkeztera datoz.



Howdy.

13:00-13:45 Bastero plaza Folk, country, bluegrass... musika estilo ezberdinak Donostiako musika taldean.



The Kill Devil Hills.

23:15 The Kill Devil Hills Australian sortutako akustiko eta country rock taldea da, eta dagoeneko bost disko aurkeztu dituzte. "In on Under near Water" azken diskoa aurkeztera datoz.



The Legendary Tigerman.

00:45 The Legendary Tigerman Gaueko izarra, nazioartean one-man-band modura aski ezaguna. Andoainen lagun izango ditu Paulo Segadaes baterijolea eta Joao Cabrita saxofoijolea.



The WC Grooves.

14:00-14:45 Goikoplaza Andoaindarrek zuzeneko emanaldia eskainiko dute, disko berria labean dutela.

GIDABAIMENA EUSKARAZ

Zozketa!!

400 euro

arteko

9 sari

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Buruntzaldeako herriren batean errolatuta egotea.
- Gidabaimena euskaraz ateratzea, 2018. urtean. Behean aipatzen diren autoeskoletan.
- Autoeskoletan dauden eskuorrietako fitxa bete eta bertan entregatzea.

BURUNTZALDEAN NON

ANDOAIN	BENGOETXEA	Juan Bautista Erro, 9	943 59 44 06
	MENDI	Agustin Leitza, 11	943 30 06 04
ASTIGARRAGA	OTAMENDI	Zubiondo, 14 - LOIOLA	943 45 11 07
HERNANI	HERNANI	Latsunbe, 3	943 55 05 34
	LAGUNAK	Karobieta, 1	943 33 23 30
	OTAMENDI	Izpizua, 1	943 55 35 45
LASARTE-ORIA	MUGICA	Ganbo, 1	943 36 22 75
URNIETA	SOLOZABAL	Idiazabal, 24-1C	943 33 41 69
USURBIL	SOLOZABAL	Irazu, 2	943 37 69 36

Dakizuna erabili ez dakizuna ikasteko

Euskaraz ikasteak SARIA du



Astigarraga

Otamendi
autoeskola



Usurbil

Solozabal
autoeskola



Lasarte-Oria

Mugica
autoeskola



Hernani

Hernani,
Otamendi eta
Lagunak
autoeskolak



Urnieta

Solozabal
autoeskola



Andoain

Bengoetxea eta
Mendi autoeskolak

ADITI!!



www.buruntzaldea.eus

**Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskara Batzordeak**

Andoni Urbistondo URNIETA

Gipuzkoako eta Euskal Herriko sega txapelduna da, eta igandean, Azkonobietako larreetan, Gipuzkoako txapelketaren atarikoan lehiatuko da, San Fermin egunez jokatu den final handian aritzeko asmoz. Xoxokako lasaitasunean bizi da Julen Gabirondo urnietarra. Hiri lanetan du bizibidea, hodiak jartzen. Iturgin lana ez omen da eroso, "egun guztia kale gorrian pasatzen baituzu, eguzkia edo euria izan". Ilunabarretan, etxeratuta, sega du arnas bide, zaletasun. Orain dela sei bat urte hasi zen, eta hasi bazen, jarraitzeko da: "Etxean momentuz bikoteak lagundu egiten dit, ez dit traba edo kexarik jartzen, eta eskertzekoa da. Pentsa, egunero lanetik 18:00tan etorri, eta entrenatzera joan behar dudala badaki. Umeak etortzen badira kontua aldatuko da, noski, baino andreaki eta aiton-amonei mesede eske hasi beharko nuke (barrez)".

Gorputz atletikoa, gihartsua duzu lehen bistan.

Beno, sega baino lehen beti egin izan dut zer edo zer: futbola, pilota, gimnasio pixka bat... Prestakuntza profesionalarekin, segan hasi arte, ez.

Nola hasi zinen?

Xoxokako festa batzuetan zaletu nintzen. Suharri Irazustabarrena eta Mikel Zumetaren aurka halako desafioa sortu zen. Mikel Garaialde lagunak eta biok irabazi egin genuen, eta hortik aurrera, ezin utzi. Prestatzaile batekin hasi nintzen, pausoak eman hoherentz, garaipenaren jokoan sartu, eta behin hori lortuta, uztea ez da samurra.

Nolakoa da segalari baten prestakuntza?

Normalean uda eta negua artean banatzen dugu, baina ez zait gustatzen denbora gehiegi geldirik egotea, gaizki sentiarazten bainau buruz-eta. Behin denboraldia bukatuta, uda bukaeran edo, lau bat entrenamendu egiten ditut neguan, gimnasioa, korrika eta bizikleta tartekatuz. Abendutik aurrera asteen bost saio, mendi irteera batzuekin, eta behin segan hasi orduko, ba asteen sei lan saio. Egun bat jai asteen. Batzuetan igandea, besteetan asteazkena... Tolosaldean aritzen naiz lanean, eta 18:00ak aldera bukatzen dut egunerokoa. Egunak izaten dira, batere gogorik ez duzuna gorputza zigortzeko, baina egoskorra naiz, eta

"Gorputzeko atal asko lantzen dira segan"

JULEN GABIRONDO SEGALARIA

29 urteko kirolari profesionala da Julen Gabirondo urnietarra. Profesionala, prestakuntzari dagokionez, sos kontutan diru zorroa bete baino hustu egiten duelako



Julen Gabirondo segalaria. ANDONI URBISTONDO

egin beharrekoa egiten ez badut, hurrengo egunean gaizki sentitzen naiz. Etsi-etsian hasten naiz askotan, baina gero gorputzak kemen hori eskertu eta erantzun egiten dizula sumatzen duzu, eta azkar ahazten da nagikeria. Kontrakoa ere gertatzen da, ez pentsa: sekulako gogoarekin hasi eguneroko lana, eta gorputzak erantzun ez...

Urte osoan bi txapelketa dituzue, nahiko segidan biak, udan. Buruz-eta ez al zaizu nekeza egiten?

Boladaka... Motibazio berriak nahi izaten dituzu beti, eta ez da erraza. Gipuzkoako txapelketa ekaina bukaera eta Sanferminak arte jokutzen da, eta Euskal Herrikoa, abuztuan. Gorputza bi hilabete horietan bete-betean egoten asmatu behar duzu, eta ez da erraza. Ikasten joaten zara urteak pasa ahala. Negua nola edo hala pasa, gero prestatzaileak egindako serieekin zaildu, eta txapelketak. Grina eta esfortzua dira kirol jarduera honen sekretuak. Besteek lana nola egiten duten ikusi eta ikasi, denek dutelako zurea hobetzen duen detaileren bat, nahiz eta agian zuk baino lan okerragoa egin.

"GRINA ETA ESFORTZUA DIRA KIROL JARDUERA HONEK DITUEN SEKRETUAK"

Txapeldu zer den izatea ezagutu duzu, behintzat.

Bai. Bitan izan naiz Euskal Herriko sega txapelduna, eta Gipuzkoakoa behin. Lehiakorra naiz, eta diziplina batean hasten naizenean, ba nire onena eman arte ez dut bale esaten. Pentsamolde, gose horri esker etorri dira hiru txapelak.

Ze adin da egokiena segan goia jotzeko?

35 urte inguruan hartzen omen da. Nik 29 ditut, eta orain lortu dut nire puntu onena, baina bada jendea 42-43 urterekin egurrean dabilena.

Txapelak bai, sosik ez, zoritxarrez...

Dirurik ez dago gurean. Gutxi mugitzen da. Atzerrira joaten garenean, Europako Txapelketan-eta, hainbestean. Iaz Suitzan egin zen, han izan ginen Almitza elkartarekin, eta 2019an Austrian izango da. Giroa ederra izaten da, Euskal Selektzioa ordezkatzu parte hartzen dugu, eta halakoak bizitzea polita da oso. Eskualde hartan estimu handia dute segalariek.

Eta txapelek ezaguna egin al zaituzte herrian?

Urnietan, kalean, ez naiz asko ibiltzen. Goiburun bai, denak ezagutzen garelako. ETB ari da saio batzuk eskaintzen, eta bueno, fama pixka bat badugu. Gehiago eskainiko balitu hobe.

Sekreturik ba al dauka segak?

Bakar bat ere ez. Batzuk kadentzia edo maiztasun handiagorekin ebakitzen dute, edo kolpe bakoitzeko belar gehiago moztu... Bakoitzak bere era dauka. Ni maiztasun txikiagokoa naiz, baina trukean, kolpe bakoitzean ahalik eta belar kopuru handiena mozten saiatzen naiz. Mozketan ahalik eta azpien egitea ere garrantzitsua da, ze orduan eta lur azaletik gorago egin, orduan eta belar kopuru txikiagoa ebakitzen da. Alor fisikoa eta teknikoa, biak dira erabakigarriak garaipenak lortzeko orduan. Askotan fisikoki ondo egoteak, fresko, teknikoki ere eraginkorrerago izateko atea irekitzen du. **Bukaerako momentuak ere ez dira kudeatzen errazak izango, proba bukatu eta ordu laurden pasa arte ez baita jakiten nor den garailea.**

Urduritasun handiko uneak dira. Aizkoran edo korrika, badakizu irabazi egin duzula, baina segan ez. Ebakitako metro koadroak ikusita, nik jakin dezaket aurkariak baina lur sail handiagoa ebaki dudala, baina horrek ez

du esan nahi kilo gehien moztu dudunik, sail ezberdinetan belar kopurua zeharo ezberdina izan baitaiteke. Segan kilo kopuruak ematen eta kentzen du dena. Guk lanak bukatuta, biltzaileek 10 minutu dituzte dena biltzeko, eta kopuruak ordu laurdenera esaten dituzte.

Biltzaileak, konfiantzazkoak dira.

Bai, bai, jende ezaguna.

Segan hasten zarenean, nola bilatzen dituzu larreak?

Ollamar baserrian aritzen naiz sarri. Normalean baserritarrek deitzen didate, egun honetan, edo hurrengoan, ea moztera pasa naitekeen. Moztu, ahal dena, eta segi. Entrenamendu bakoitzean 1500 edo 2000 metro koadroko saila mozten dugu, gutxi gora behera. Batzuetan ordubete bete-betean, besteetan ba bi ordu lasai antzean. Edo 10 minutuko serieak, edo ordu erdikoak. Prestatzaileak agintzen didana. Beti lagun batekin alboan, sega zorrozteko-eta.

Zenbat sega dituzu?

Hiru dauzkat txapelketetarako. Birekin ere osa dezakezu. Belararen arabera asko kamusten da xafila: belarra hezea egon, lehorragea, sator lurretan ego- tea...

Zenbat balio du sega batek?

200 bat euro, kirtena aparte. Euskal Herrian dagoeneko ez dira ekoizten lehiaketarako segak.

Nola?

Daudenak daude. Lehen Legazpiko Bellota enpresak egiten zituen, baina gaur egun, dagoeneko, apenas erabiltzen dira, belaze guztiak traktorearekin ebakitzen direlako. Errostekotan Austrian eros daitezke, baina ez dira hemengoak bezain onak. Hemengoak bukatzen joango dira, urteak aurrera joan ahala, eta gero ikusiko da zer gertatzen den. Askok ganbaran gordeta dituzte, erabili gabe, oroitzapen bezala. Nik neuk ere sega onak direla uste dudanak gutxiago erabiltzen ditut, urte gehiagotan erabili ahal izateko esperantzarekin.

Penagarria, ezta, segarik ez ekoiztea?

Modernitatea... Guk, segarekin, 2000 metro koadro moztzen ditugu bi ordutan. Traktoreak 10 aldiz gehiago. Eta gerriko minik ez. Garai batean lanbidea zen, gaur egun ez. Aldaketa normala da. Baserriko munduak etorkizun iluna du. Bitartekoek baserri- tarrak baino sos gehiago irabazten

dute, eta ez da normala. Nire ustez baserritar batek 8-10 orduko lana egingo balu, bizibidea aterako luke... Lehen 6-8 behirekin aurrera ateratzen zen baserria, orain horrekin jai dago. Behirik gabe sasia zabaldu egiten da, dena zikinagoa dago, baina inork ez du garbitzen. Norbaitek buelta batzuk eman beharko lizkioke, ze bestela esne ustiaketak bukatuko egingo da, eta askok uste duguna baino lehenago.

Igandean daukazu atariko kanporaketa. Nola zaude sasoz? Langa gaitutiko al duzu?

Bi adar daude. Adar bakoitzetik bi pasatzen dira, eta adar bakoitzean bost segalari ariko gara lehian. Ez dut lan errazik izango. Nire adarrean Igor Esnaola dago, aurkari gaiztoa eta Gipuzkoako Txapela irabazitakoa hirutan. Ivan Pardok ere asko hobetu zuen iaz, eta lanak emango dizkit. Tira, jarduneko txapelduna naiz, baina aurtengo eguraldia izan dena izan da. Eguraldi hezearekin baserritarrak ez du nahi segan aritzea, gutxi aritu naiz, eta aritu izan naizenean, toki txarretan: arbol tartean, sagastietan... Nabaritu egiten da, baina ni bezala, beste guztiak ere antzera dabilta, nahi eta ezin. Orain dela urte batzuk eguneko moztu, eta eguneko ematen zitzaien behiei. Orain ez, orain bolak egiten dira, eta nahi dutenean eman behiei.

Zer da segako onena?

Kirol polita dela. Gorputzeko atal guztiak lantzen dituzu, hantketatik leporaino. Eta naturarekin kontaktuan egotea.

Eta txarrena?

Belardi bila aritu behar izatea, entrenatzeko. Gu ere eguraldiaren baitan ibiltzen gara. Ona datorrenean, denek deitzen dizute, mozteko, eta dena ezin iritsi.

Ba al du segak jendearen jarraipenik?

Gero eta jende gehiago agertzen ari da, Almitzak ere jendea erakartzeko lan ona egiten du, eta jendea etortzen da txapelketak ikustera. 800-1000 bat lagun batzen dira lehiaketa bakoitzean, eta kopuru polita dela esango nuke.

Urnietan hitzordu polita, beraz, egun pare batean!

Federazioak galdegin zigun ea proposamenen bat bagenuen. Azkonobietako larrea aipatu zen, eta halaxe egingo da. Urnietako jendearentzat aukera ezin hobea da.

Gonbidapena egina dago!

Santos eta Esnal Gipuzkoa Open sarian

IGERIKETA Urrezko bost domina, bi zilarrezko eta brontzezko beste bat lortu dituzte Buruntzaldea igeriketa taldeko igerilariak Gipuzkoako Open Saria-Richard Oribe sarian. Guztira zortzi igerilarik parte hartu zuten hitzorduan

Erredakzioa BURUNTZALDEA

Buruntzaldea igeriketa taldeko zortzi kidek hartu zuten parte Gipuzkoako Open sarian, tartean Nerea Santos urnietarra eta Mikel Esnal andoaindarra.

Santos 200 metro lau estilotan aritu zen goizean, eta 400 metro librean arratsaldean; bietan marka pertsonala hobetzea lortu zuen.

Esnal 50 metro librean aritu zen. Tximeleta estiloan burubelarrari dabilenez ez zuen marka pertsonala hobetzea lortu, eta 6. postuan sailkatu zen. Hurrengo egunean 50 metro tximeletan finalean hirugarren geratu zen.

Udako erronka Sevillan du.



Mikel Esnal Gipuzkoako Open sarian, bosgarren kalean. BURUNTZALDEA IKT



ITURZAETA BATZORDEA

Bi final eta afari apustua larunbat arratsaldean

PALA Iturzaeta memoriale azken txanpara iritsi da. Sorabillako pilotalekuan jokatzeko den txapelketako finalak larunbat honetan jokatu dira. Lehen partida afari apustua izenekoa izango da, 16:30ean hasita. Afaria jokoan izango dute Garmendia-Dani eta

Corrochano-Arizaga bikoteek. Txapela jokoan izango da hurrengo bi finaletan. Neskena 17:00tan hasiko da, Itsasne-Irati eta Alaine-Rakel bikoteen artean. 17:30ean hasiko da mutilena, Loidi anaiak eta Aritz-Mateo bikotearen aurka.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 15

ANDOAIN Lehiaketa

Salkin merkatarien elkarteak lelo eta logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatuta du. Sari bakarra: 500 euro. Lanak Ondarreta kaleko 6an duten egoitzan aurkeztu behar dira. Parte hartzeko azken eguna: Ekainak 15. **Ondarreta, 6. 09:00-12:00.**

URNIETA Ikastaroa

Udako ikastaroetan izena emateko azken eguna. Tenisa, patinaia, zunba, spinning eta igeriketa. **Udal kiroldegia.**

URNIETA Antzerkia

"Euskal-Frouzen Negua", Urnietako gaztetxoan antzerki taldearen eskutik. **Sarobe, 18:00.**

URNIETA Kafe Antzerkia

Herriko antzerki eskolaren eskutik, kafe antzerki saio bikoitza. Informazio gehiago 7. orrialdean. **Guria, 19:30. Egur, 21:00.**

URNIETA Dantza emanaldia

"Ez utzi dantzazeari" ikuskizuna Egape dantza taldeko beteranoren eskutik. **San Juan plaza, 22:00.**

LARUNBATA 16

ANDOAIN Tailerra

Autodefentsa feminista tailerra. **Allurralde, 10:00-14:00, 16:00-20:00.**

ANDOAIN Tailerra

Ligatzeko tailerra, gizonezkoentzat. **Urigain, 10:00-14:00.**

ANDOAIN Azoka

"Alternaktiba azoka", herri eragile askoren parte hartzearekin. Aurkezpen eta hitzaldiak goiz osoan zehar. Antolatzaileei elkarrizketa 5. orrialdean **Juanita Alkain plaza, 11:00-14:00.**

ANDOAIN Rock jaialdia

Bertako eta nazioarteko taldeak zuzenean, eta dohainik. Eguerdian emanaldiak plaza ezberdinetan. Informazio osoa 8-9. orrialdeetan. **Nafarroa plaza, 18:00.**



ANDOAIN Janari bilketa

Janari bilketa Greziara hurbiltzen ari diren errefuxiatuen alde. Bilketa Irunberri, Ernaitza, Keinu, Ogi Donosti, Xixori dendak, Pottoko. Coviran Karrika eta Etxeberrieta, Santa Krutz fruta denda. Rifak salgai izango dira, 2 eurotan. **Alternaktiba azoka. Juanita Alkain plaza, 11:00-13:00.**

IGANDEA 17

URNIETA Irteera

Kultur astearen hasiera, Jakara egingo duten egun osoko irteerarekin. **Irteera: Denda Berri, 07:30.**

ANDOAIN Areto futbola

Andoaingo txapelketaren finalak: 3-4. postuak Dad Kutxa-Akerbeltz (10:00), B taldeko finala Irunberri-Academia GF (11:00) eta A taldeko finala Keler-Txalaka (12:00). **Allurralde, 10:00-13:00.**

URNIETA Segua

Gipuzkoako sega txapelketa. **Azkonobieta baserria, 11:00.**

URNIETA Dantza

Koloredantz ikuskizunaren bi saio, Egape DT taldearen eskutik. Informazio gehiago 7. orrialdean. **Sarobe, 17:30. 19:30.**

ASTEARTEA 19

URNIETA Ipuin kontaketa

Iñigo Salinero "Txafas" ipuin kontalararen saioa. **Denda Berri, 18:00.**

ASTEAZKENA 20

URNIETA Ibilaldia

Irun, Hendaia, Behobia, Irun Denda Berrikoaren eskutik. **Bazkaria, 13:30.**

OSTEGUNA 21

URNIETA Ibilaldia

Bingo saioa pentsiodunen elkartearen. **Denda Berri, 17:30.**

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko ohiko batzaraldia. **Pleno aretoa, 19:00.**

OSTIRALA 22

URNIETA Mahai-jokoak

Mahai jokoak eta toka. **Denda Berri, 16:30.**

ANDOAIN Erakusketa

Emakume raketistak, azken eguna. **Bastero, ohiko ordutegia.**

ANDOAIN San Juan jaiak


Pregoia, Urkiren eskutik. **Udaletxeko balkoia, 19:00.**

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Jurassic world: el reino caido
Larunbata, 16:
19:30; 22:00.
Ig, 17: 19:30.
Astelehena, 18:
19:30; 22:00.



ZINEMA KALEAN

UDAN

Guardians de la Galaxia
Uztailak 6, ostirala:
22:00 Bazkardoko frontoia.
Batman Lego
Euskaraz.

Uztailak 12, osteguna: 22:00. Zumea plaza.

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar
Uztailak 6, ostirala: 22:00 Goikoplaza.

SINOPSIAK

**Jurassic world: el reino caido**

Zuz.: Juan Antonio Bayona. **Herr.:** Estatu Batuak (2018). **Iraupena:** 128 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelera.

Dinosauroen erreskatean

Lo zegoen sumendia erupzioan hasiko da, eta erreskate talde bat antolatuko dute Owen

Grady-k eta Claire Dearing-ek bizirik geratu diren dinosauroak erreskatatzeko.

Erakusketa San Juan jaietan

Ohikoa den bezala, kultura batzordeak antolatzen dituen pintura, egur taila eta eskulanak ikastaroen erakusketa zabalik izango da San Juan jaietan. Ekainaren 22tik 28ra honakoa izango da ordutegia: Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara ekainaren 22, 26, 27 eta 28an. Ekainaren 23an, goizez eta arratsalde zabalik izango da, 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era. Erakusketa berdinean ikusgai izango dira aurtengo San Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ere.



Txapelketa ikusgarria

Bidasoako alebin mailako futbol txapelketan 24 taldek parte hartu dute. Urnietarrek Hondarribi, Milan eta Mariño taldeak garaitu zituzten lehen fasean. Txukun hasi zuten hurrengo Mundarroi irabaziz, eta azkenerako laugarren postuan amaitu zuten txapelketa. Kopa Real Sociedadeko Alberto Gorritz jokalaria ohiaren eskutik jaso zuten.



ZORION AGURRAK



URNIETA
Malen
6 urte beteko ditu ekainaren 18an. Ondo pasa zure egunean! Asko maite zaitugu! Etxekoak



URNIETA
Karen
Ekainaren 15ean 4 urte! Neska jatorra zara zu! Izugarri maite zaitugu, Karen. Aita, ama eta Alain.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 16 eta igandea 17
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 16 eta igandea 17
AIZPURU: Latxunbe Berri, 11.
943 336 077. Urnieta.

Gaeuz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

Soinuak musika eskola

Igor Letona eta Eli Gallo irakasleekin batera, Gazte Lokalean musikari gazteak zuzenean aritu ziren kitarra eta akordeoi doinuak eskainiz: Aiora Otamendi, Nahia Gorostidi, Odei Etxeberria, Nora Garcia, Ainhoa Altuna, Gerezi Jauregi, Garazi Ezama, Mikel Etxegia, Mikel Galan, Eneko Gonzalez, Adur Alonso eta Koldo Gonzalez.



Txotx garaiaren balorazioa

Donostiako agerraldian emandako datuen arabera, txotx garaiaren 600.000 lagun ibili dira elkarteko sagardotegietan. Iaztik hona turismoaren bitartez erakarritako bezeroa %25a igo dela adierazi zuten ere. Udari begira Sagardo Tour aurkeztu dute Gipuzkoako txoko ezagunak, herrietako merkatuak eta sagardotegiak elkar lotu asmoz.



Etxeberriaren eleberria

"Zein usain dute oroitzapenek?" liburua aurkeztu du aste honetan Maddi Etxeberria gazte andoaindarrak Erein argitaletxearekin batera. Donostiako Udal liburutegian izan zen aurkezpena eta bertara kazetariak eta lagun ugari bertaratu ziren. Xehetasun gehiago Aiurri hamaboskarian, ekainaren 22ko alean.



ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



AZKEN BERBA

ANDONI URBISTONDO
 URNIETA

Ni han egon nintzen

Ekainaren 16a zen. Baina 2010ekoa. Buesa Arenan nengoen. Gasteizen. ACB Ligako final handia jarraitzen, Berriarentzat. 0-2ko aldea zeukan Baskoniak lehen biak irabazita, baina Bartzelonak eskura zeukan garaipena. Puntu bateko aldea, eta bi jaurtiketa libre Basilerentzat. Bigarrena huts egin zuen, eta San Emeteriok hartu errebotea. Teletovic baloi eskean zeukan, bosniarrak azken jaurtiketa nahi zuelako. San Emeteriok beretzat gorde zuen baloia. Basileri iskin egin, eta 2+1ekoa gauzatu zuen, Morrisen falta behartuz. 79-78, eta historiako hirugarren titulua. Kazetariak sinetsi ezinik geunden, gure tokian. Splitter Brasilgo banderan bilduta, Marcelinho burusoilduta... Ordu txikiak arte egon ginen Buesa atarian, udako gauaz gozaten. Liga bat irabaztea ez baita eguneroko kontua.

Zortzi urte geroago itzuli da Marcelinho, eta finala jokatu du berriz Baskoniak. Euskal Herria ordezkatzeko duen ikurretako bat da Baskonia. Euskal Herriko 7 herrialdeetako zaleak erakartzen dituena. Toki gutxitan bezalako giroa sortzen du Buesan, eta horregatik, traola hau erabiliko dut hurrengo egunetan sarean: #hanizannintzenhanizangonaiz.

AZKENA

WC Grooves, Andoaingo ordezkariak rock jaialdian

Andoaingo taldeak eguerdirako iragarritako kontzertuetako bat eskainiko du. Laukoteak urrian kaleratuko duen diskoaren aurrerapena egingo du Goikoplazan, arratsaldeko 14:00etatik aurrera

Xabier Lasa ANDOAIN

Oskar Perales (ahotsa eta gitarra), Daniel Pagola (bajua), Sergio Vicente (gitarra) eta Oskar Uribealgok (bateria) osatzen dute taldea The WC Grooves taldea. Nahiko xelebrea izan omen zen hasiera: Duela hiru urte elkarren berri izan zuten; rockzale amorratuak izateak elkartu zituen. Haurrak ikastetxetik jasotzeko garai horretan hizketan hasi eta horrela erabaki zuten taldea osatzea: "2015ean Andoaingo Udalarengana jo genuen, Arrate pilotalekuko azpialdean entseiatzeko lekuri bat ote zegoen galdetzeraz. Erabiltzen ez zuten komuna libre zegoela erantzun zieten. Bada, huraxe eskatu genuen, lekua goitik behera berrietzeko konpromisoa hartu eta gero". Egin beharrekoak eginda, gela txikian biltzen dira ostiralero. Sakratua da hitzordua. Izena jartzerako orduan, beraz, entsegu-lokala izan zuten inspirazio iturri. WC komunaren laburdurari Grooves hitza erantsi zioten: leku itxi batean musikaren soinua sortzen duen aparteko sentsazio edo atmosfera adierazi nahian. Larunbatean Andoaingo ordezkariak izango dira rock jaialdian.



Vicente, Pagola, Perales eta Uribealga, iraganean WCa izan zen entsegu gelan.

Rock jaialdiaren atariko emanaldiak

"Jaialdi Aperitifa" formatu berria, XI. Rock Jaialdiko eguna borobiltzera eta aberastera dator, eta aldi berean, Euskal Herriko rock taldeen erakuslehoi xumea izan daiteke". Eguerdian hiru kontzertuen egitasmoa aurrera eraman duen "Ideia zabaldu" ekimeneko kideen adierazpenak dira horiek. "Ordiziarrock, Irun Rock eta antzeko jaialdien eskarmentuek erakusten digute eguerdiko kontzertu txiki horiek arrakasta badutela, entzulegoa erakartzen dutela. Besteak beste, familiako ardurak direla eta gaua eta rocka uztartu ezin dutenentzat".

"Ideia zabaldu" ekimeneko ordezkariak eskerrak eman nahi dizkie Andoaingo Udalarari eta herriko tabernariei, Jaialdi Aperitifa elkarlanean egitea ahalbiderratu dutelako.

Nork bere musika gustuak ditu eta ez dute bat egiten horretan. Bai, ordea, neurrigabeko musika zaletasunean. Heavy musika du gogokoen Peralesek, metala Pagolak, rock klasikoa Vicentek eta hardcorea Uribealgok. Nongo bidetik jo, beraz? Beti-betiko rockari heldu zioten hasieratik, geroztik etorri ziren musika estilo guztien oinarrian dagoelako. Led Zeppelin, Thin Lizzy, ZZ Top... eta antzeko taldeen bertsioak jotzen hasi ziren, baina denboraren poderioz hamabi kantu sortu dituzte.

Perales eta Pagola dira taldeko konposatzaileak. Ingelese abesten du Peralesek; ingeleseko irakaslea da, eta eroso sentitzen da horrela kantatuz. Letrek, berriz, rockaren munduan "betitikoak" diren gaia jorratzen dituzte: parrandak, gautxorien ibilerak, emakumeak, maitasuna...

Udazkenean kaleratuko dute lehen diskoa

Urrian zehar zazpi kantuz osatutako diskoa kaleratuko dute. "18 urteko mutil-koxkor batzuk bezala gabiltza, egundoko ilusioarekin! Gaztetxean 2016ko abenduan lehen kontzertua egin genuenetik, kontzertu mordoa eskaini dugu, eta ikusi gaituztenek oso zuzeneko bikaina daukagula esaten digute. Zenbait kontzertu datozen asteetarako lotuta dauzkagu; beste hiruzpatalau eskaintzei ezetz esan behar izan diegu, lauok ezin garelako bildu".

Andoaingo rock jaialdiaren eguerdiko saioan euren sormenekoak diren hamabi abesti eskainiko dituzte Goikoplazan, ordubeteko saioa osatu asmoz.

Sanjuanak 2018 datorren Aiurri astekarian:

Protagonistak,
egitarau osoa, hitzordu
esanguratsuak